

Testuak lantzen

i Bete itzazu hutsuneak behar den aditza ipiniz:

Mila ofizioko gizona zen Emilio. Lantegi askotan ibilia ... eta gauza asko egiten Batez ere makinak konpontzen zen trebe. Herriko tailer guztietako nagusiek ba... nori deitu makinaren bat hondatzen zenean. Itsasontzietako motorrak ere ondo ezagutzen zituen Emiliok. Makina bat aldiz jaitsia zen makinetara hau edo hura konpontzera.

Gau batean, lo ... , telefonoz deitu zioten.

—Adizu, Emilio, etorri lehenbailehen gure barkura, motorra konpontzera. Ez dakigu zer daukan, baina ez dabil.

—Gizona, ba al dakizu zer ordu ... ? Bihar goizean joango naiz.

—Ez, ez, orain behar zaitugu. Goizeko zazpitan irten behar du barkuak itsasora eta lehenbailehen konpondu behar dugu. Diru asko galduko dugu bestela.

Zer egin ez ... geratu zen Emilio. Ezetz esan behar bazen, ezetz esaten ere ba... . Baina, beste aldetik, aukera polita zen hura.

—Adizu —galdetu zion gizonari—, zer barku da hori?

—‘San Anton’ arrantzontzia da; ezagutzen ... , noski. Orduan zer, etorriko al zara?

—Bueno —barrua pozik zuen Emiliok—, beharbada bai; zenbat pagatuko dizazue?

—Ba... hori galdetuko zenuela. Zenbat ordainduko dizugun? Ez dakit, bada. Etorri lehenbailehen eta hitz egingo dugu.

—Ez, ez, zenbat irabaziko ... jakin gabe ez naiz inora joaten.

—Tira, hamar mila duro emango Nahikoa al da?

Orduantxe esnatu zen benetan Emilio. Hamar mila duro! Hogei minutu pasatu baino lehen hantxe zen, ‘San Anton’ ontzian, makinak ikusten. Ezer ukitu gabe, motorretako pieza guztiak miatzen hasi zen. “Motor ona da hau —pentsatu zuen bere artean—; lehengo jendeak ere ba... gauzak egiten”.

—Destorniladorea, mesedez —eskatu zuen gero.

Destorniladorea hartu eta motorren azpian erdi ezkutuan zegoen tornilo bat estutu zuen. Ondoren, zutitu eta eskuak garbitzen hasi zen.

—Konpondua dago —esan zuen irribarrez.

Eta horrelaxe zen. Motorrak pla-pla-pla hasi ziren berriz ere. Barkuko mekanikoek arratsalde osoan konpondu ez zutena, Emiliok bost minututan konpondu

Armadorea, berriz, haserre Horren lan errazagatik hamar mila duro eman beharra ere!

—Bai —esan zion Emiliok—, lan erraza zen, baina ... jakin behar zen!

makina bat: muchas

→ a. Aurkitu testuan hitz edo esaldi hauen antzekoak:

lantoki	ugazaba	sarritan	azkar-azkar	ez du funtzionatzen	agian
aski	igaro	begiratzen	gordean	mintzatuko gara	berriro

→ b. Egin ezazu testu honen laburpena; edo, bestela, kontatu lagun bati.

